



TXINTXARRI EGUNA OSPATUKO DUTE ETZI

Meza nagusiaren ondoren kontzertua eskainiko dute parrokiak; orain gutxi hil den Joxe Gastesi omenduko dute 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-10-22

VIII. URTEA 2.106. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



E. EZEIZA

AIERT BEOBIDE ETA KATIXA PEREA KOREOGRAFOAK

«'Oinazez' lanak sustraiak atzean uzteak sortzen duen mina islatzen du»

IBARRA Alurr dantza taldeak ikuskizun berria estreinatuko du datorren abenduaren 10ean Tolosako Leidor aretoan 5



Musika Eskola inauguratu zuteneko unea. E. MAIZ

Herritarrek Musika Eskola berria dute jada

ADUNA Kultura jarduerak burutzeko lokalak egokitu dituzte Landagipuzkoa 32ren baitan 4

Erkki Pohjola omentzeko emanaldia, bihar

TOLOSA Abesbatza Lehiaketaren bidez iritsi zen finlandiarra herrira; hitzordua Leidorren da 3



hitzak hitza

LAGUN ARO GBC ASEFA ESTUDIANTES

saskibalo partidarako

Urriak 24 • Igandea • 18:30ean Donostiako Ilunben

Martxeli Sagastume Arregi (ALEGIA)

sarrerak gaur HITZaren egoitzan jaso

Tolosako Leidorren estreinatuko den ETZI antzezlanerako


Urriak 22 • Ostirala • 20:30ean

**Aloña Usandizaga Izagirre (IRURA)
Rosario Arozena Etxeberria (LIZARTZA)**

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin



saridunak





Zerrendaburuak aurkeztu ditu H1-ek

POLITIKA ● Hamaikabat alderdiak datozen hauteskudeetarako aurkeztuko diren zerrendaburuak jakitera eman zituen atzo. Hain zuen ere, Andoni Iturzaeta (erdian) izango da Tolosako zerrendaburua, Itziar Jauregi (eskuinetik bigarrena) Ibarakoa, Gabino Agudo (eskuinean) Andoaingoa eta Ana Olaziregi (eskuinetik laugarrena) Zizurkilgoa. Tolosan izan zi-

ren atzo, eta eurekin batera, Gipuzkoako Hamaikabat alderdiko lehendakaria Martin Beramendi (ezkerrean) izan zen. Iturzaetak «herriarren alde oinarri arrerakoi eta sozialekin» egingo dutela lan adierazi zuen. Halaber, bizi duguna bezalako garaietan, «erdi-bideko politikak eta ez muturrekoak» bultzatu behar direla adierazi zuen. ir.

Argi-itzalez eginiko antzezlan, Topic-en

ERREDAKZIOA

Teatro Plus konpainiak *Laleyenda del farol* lana aurkeztuko du bihar Topic-en, 18:00etatik aurrera. Argi-itzalez, koloreez eta iluntasunez osaturiko emanaldia da, eta baita, egileek dioten bezala, beldurrez eta poztasunez. Guztien gainetik, poesia da gailentzen dena lan honetan, 11 urteko haur batek idatzitako poesia, hain zuzen.

Serbia eta Bulgariako bi aktorek egiten dute lan Asturiastik datorren taldean. Antzezlan honetan, txotxongiloak eta musika erabiliz kontaktzen dute istorioa. «Argia eta itzala batzen dira Lurraren edertasuna irudikatuzko; oparia guztiok barruan dugun farola da», diote.

Helduek 7 eta haurrek 4 euro ordaindu beharko dute sarrera bakoitzarengatik.

Lau talde izango dira, gaur eta bihar, Bonbereneako taula gainean

Musika » Never Surrender eta CC627 ariko dira gaur, eta Surfing Kaos eta Las Culebras bihar, 22:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Lau talde izango dira asteburuan Bonberenean. Gaur Never Surrender eta CC627 ariko dira, eta bihar, Surfing Kaos eta Las Culebras. 22:30ean hasiko dira kontzertuak.

Never Surrender arrasatearrek *11 istorio, bronka eta gauero* izeneko lan berria aurkeztuko dute. Hauen ostean, CC627 Oñati eta Arrasate artean sorturiko taldea ariko da.

Hurrengo egunean, hau da, bihar, punk-rock doinuak nagusituko dira. Lehendabizi Surfing Kaos ariko dira, eta ondoren, Las Culebras taldekoak.

L Laburrak

Uzturre taldearen bilera izango da hilaren 26an

GIZARTEA ● Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldearen hurrengo bilera, datorren asteartean, hilaren 26an, izango da. Ohi bezala, Corpus Christi parrokiko lokaletan izango da, 20:00etan. Alkoholarek eta bere ondorioen kalteen eta erreku-perazioaren inguruan ariko dira bileran, besteak beste. Alkoholak kalteturikoak eta euren senideak gonbidatzen dituzte bilerara.

Udalbiltzaren epaiketaren aurkako elkarretaratzea

POLITIKA ● Udalbiltzaren aurkako epaiketa amaitu da, eta 22 auzipetuek epaiaren zain daude. Euren-tzat 10 eta 35 urte bitarteko espetxe zigor eskaera egin dute Fiskaltzak eta herri akusazioak. Epaiketak irau duen bitartean udal hautetsi, ordezkari politikoa, sindikal, kultural eta sozial ugari eta anitzek eta milaka herritarrek salaketa egin dute, eta oraindik ere mobilizazio gehiago egongo direla esan dute epaiketaren aurka egiteko eta 22 auzipetuek absolutuzioa eskatzeko. Esaterako, bihar, Tolosako Plaza Zaharrean egingo dute elkarretaratzea, 12:00etan eta Anoetan ere ordu berean Udal-letxe parean izango dira.

Tor eta Eriz magoak ariko dira bihar arratsaldean

KULTURA ● Tolosa & Co Merkatarien elkarteak antolatuta, Tor eta Eriz magoak ariko dira bihar Zerkausian. Bi emanaldi eskainiko dituzte, bata 17:30ean, eta bestea, 19:00etan. Pasa den urtean bezala, aurten ere merkatariek ekintza desberdinak antolatzeaz ekin diote, «larunbat arratsaldeetan herri-ko giroa alaitzeko helburuarekin».

Memoria historikoari buruz erakusketa ikusgai

HISTORIA ● Aranzadi Zientzia Elkartean eskutik, *Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz* izeneko erakusketa egongo da ikusgai gaurtik aurrera Aranburu jauregian. Memoriaren erreku-perazioaren inguruan Tolosako Udalarekin batera antolatutako ekitaldien baitakoa da.

K Kirol jarduerak

Gaur, urriak 22

Es kubalioa

■ Usabalgo beheko kantxan, 20:00etan, senior mailakoen partida: Tolosa - Irungo Gazteak.

Bihar, urriak 23

Areto futbola

■ Usabalgo beheko kantxan, 10:00etan, eskola kirola, kadeteen mailakoen partida.
■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, lehenengo mailakoen partida: Tolargi - Zarautz.
■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, bigarren mailakoen partida: Laskorain - Denak taberna.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil mailakoen partida, 10:00etan: Tolosa CF - Lazkao.
■ Usabalgo futbol zelaian, infantil txiki mailako partida, 11:30ean: Tolosa CF - Vasconia.
■ Usabalgo futbol zelaian, preferente mailako partida, 15:30ean: Tolosa CF - Mutriku.
■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezko senior F11 mailako partida, 17:30ean: Tolosa CF - Hernani.
■ Berazubiko futbol zelaian, lurraldekako ohorezko mailako partida, 16:30ean: Tolosa CF - Pasaia.

Rolleskia

■ Hernaldeko Rolleski Igoera, 16:00etan.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 09:00etan, infantil mutilen partida: Take Aldaba - BKL.
■ Usabalgo goiko kantxan, 09:00etan, infantil nesken partida: Take Montesku - Soraluze.
■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantil nesken partida: Take Urkizu - Zast.
■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadete mutilen partida: Bide Bide Take - BKL B.
■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadete mutilen partida: Take Tovar - BKL.
■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, jubenil mutilen partida: Take - Gamon.
■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, senior mailako partida: Take Orbela - Alde Zaharra.

Etzi, urriak 24

Areto futbola

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, nesken partida: Laskorain - Las Guaranas.

Es kubalioa

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:00etan, kadete mailakoen partida: Tolosa - Hondarribia.
■ Usabalgo goiko kantxan, 11:30ean, jubenil mailako partida: Tolosa - Ordizia.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, alebin mailako partida, 09:30ean: Añorga - Villabona; Euskalduna - Ordizia; 10:45ean: Ostar - Anaitasuna; Urola - Hernani. 12:00etan: Beasain - Tolosa.

MUNDUKO SUKALDARITZA →
EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA
MAROKO • BRETAINIA
INDIA • MEXIKO • VIETNAM
ARGENTINA • LIBANO
ITALIA • TXINA

berriarekin eskaintza berezia

EGIN ESKAERA
urriaren 29a baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

LAGUNTZAILAK
FAGOR

AUKERAK EZAZUL
DUTI EUSKAL
berria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Sei haur abesbatza, helduen abesbatza, orkestra, bakarlariak, olerkiak eta irudiak izango dira bihar Leidorren, Erkki Pohjola musikari finlandiarra eta herria eta kultura egin dutenak omendu nahian.

Erkki Pohjola, zuretzat

JOXEMI SAIZAR

Tolosatik pasatu den musikaririk handienetakoa omenduko dute hainbat abeslarik eta musikaririk bihar 20:00etan Leidorren: Erkki Pohjola zuzendari eta pedagogo finlandiarra. Abesbatza Lehiaketaren bidez iritsi zen hona 80. hamarkadan eta 2009ko urtarrilean hil arte maiz etorri zen. Aurtengo Lehiaketaren aurrekaria izango da ekitaldia, Et Incarnatus orkestrak antolatuta.

Haur abesbatza munduan eskola sortu zuen Pohjolak. Finlandiako Tapiola haur abesbatza zuzendu zuen 'soinu berezia' lortuz. Arrakasta handia sortu zuen Eskandinavian, Europan eta mundu osoan. Haurrak izango dira bihar-ko omenaldi kontzertuaren ardatza. Bost abesbatza desberdinetako 240 haur izango dira kantari: Donostiako Orfeo txikia, Araoz Gazte, Ereskitxo (hurrenez hurren, Donostiako Orfeoia, Easo eta Donosti Ereski abesbatzen harrobiak) eta Tolosako Hodeitruk eta Laskorain abesbatzak.

Baina ez dira bakarrik izango taula gainean. Helduen abesbatza indartsua izango dute lagun: Sustraien Ahotsa. Ezaguna du Tolosako aretoa, Abesbatza Lehiaketako kontzertu berezia eskaini zuelako.

Tapiola abesbatzaren zuzendaria izan zen Pohjola eta soinu berezia sortu zuen haur kantuan

Et Incarnatus orkestra eta Sustraien Ahotsa abesbatza ariko dira haurrekin batera

Martxan egon zen bi urtetan Txilen zehar bira eta Euskal Herrian inork baino emanaldi gehiago izan zuen *Polizoiak* emanaldiarekin. Et Incarnatus orkestra izango da ahoz azpiegitura musikala jarriko diena. Aski ezaguna da Tolosan (Inauterietako diskoa, urteroko solstizio kontzertuak) eta inguruetan (filma askotako musika grabatu du, emanaldi ugari bakarlari ospetsuekin...). Sustraien Ahotsa abesbatzaren eta Et Incarnatus orkestraren zuzendaria Migel Zeberio tolosarra da eta bera izango da larunbateko ekitaldiaren zuzendaria. Bere anaia Juantxo Zeberio pianoan eta Gorka Benitez saxo-

foian izango dira bakarlariak, jazz bikotea osatuz, biak musikari irakasleak Donostian eta Bartzelonan eta talde ezagunetan aritzen direnak.

Jazza, klasikoa, herrikoia

Plantel honek programa berezia eskainiko du musikari finlandiarren omenez: Zoltan Kodalyren bi obra, Wessman, Rautavaara, Hyokki eta Salinen-en obra bana eta konposatzaile tolosarrek ere bere artea izango dute, Ignacio Mokoroaren *Sanctus* bitxia eta Juantxo Zeberio beraren *Muxu*. Haurrak izanik protagonistak, programa zorrotza dela esan daiteke. Olerkiak eta irudiak ere izango dira emanaldian. Julio Medem zine zuzendari donostiarrak *Los amantes del Circulo Polar* filmatu zuenean, Pohjolaren etxea aukeratu zuen irudi batzuetarako. Jose Mari Tuduri tolosarraren *Karlis-tadaren kronika* filman ere parte hartu zuen Medemek. Bi filmeetako irudiak izango dira Leidorren. Edorta Matauko izango da olerki hautaketa egin eta errezitatuko dituen.

Emanaldi bakarra izango da eta gogoangarria izatea espero dute, Tolosaren sorreraren 750. urterurrean Zumardi Handian egin zen bezalako. 300 abeslari eta orkestra bat eszenatikian, elementu desberdinak (bakarlariak, irudiak, olerkiak), programa bereziki hautatua... Erkki Pohjolaren alarguna eta bere semea Seppo, konposatzaile ospetsua, bertan izango dira. Orain arte Finlandian bi omenaldi egin dizkiote (*you-tuben* ikus daitezke irudi batzuk) eta obra ugari eskaini dizkiote mundu osoan.



TOLOSA • Tolosar ugari izango da kontzertu honetan partaide. Migel Zeberio zuzendaria eta bere anaia Juantxo piano-jotzaileaz gain, Sustraien Ahotsa abesbatza eta Et Incarnatus orkestran badira partaide batzuk. Herriko bi haur abesbatzak ere ez dira faltako omenaldian. Hodeitruk



Erkki Pohjola zuzendari eta irakasle finlandiarra askotan izan zen Tolosako Abesbatza Lehiaketan. HITZA

«Liluratuta gelditu ginen denok; garai bat markatu zuen Tolosan»

MIGEL ZEBERIO • Orkestra eta abesbatza zuzendaria

Musika » Pohjolaren soslaia eta garrantzia agertu eta kontzertuaren helburuak azaldu ditu Et Incarnatuseko zuzendariak.

J.SAIZAR

Migel Zeberio orkestra eta abesbatza zuzendari tolosarraren ekimena izan da Erkki Pohjolaren omenaldi kontzertua, hainbat lagun-tzailearekin batera. Bera izango da ekitaldiaren zuzendaria.

Nola ezagutu zenuen Pohjola?

Antolatzaileak interesatuta, Abesbatza Lehiaketara etortzen hasi zen 80. hamarkadaren bukaeran epaimahaikide edo gonbidatu gisa. Askotan etorri zen. Tapiola abesbatzarekin ere izan zen kontzertu berezia eskainiz. Azkena 2008an etorri zen, hil baino bi hilabete lehenago. Gaixo egon arren,



IMANOL OTEGI-ARGAZKI PRESS

Tolosara etortzeko irrika zuen. Aita antolaketan zebilen eta harreman estua lortu genuen bi familien artean. 1990ean edo, abesbatza zuzendarietzako ikastaro bat eman zuen Tapiola abesbatzarekin eta denok liluratuta eta maiteminduta

gelditu ginen. Garai bat markatu zuen Tolosan. Gero Kubako Exaudi abesbatzak bezalaxe.

Nolako zen?

Gizonxumea eta herrikoia. Kalean edo tabernetan jende askok bere ondoan izango zuen. Eta aldi berean maila handiko pertsonaia zen mundu osoan. Bere *Songbridges* proiektua oso garrantzitsua da abesbatza munduan. Haur abesbatza mundua irauli egin zuen duela 30-40 urte eta iraultza horrek eragina du gaur egun.

Zer egin nahi duzue larunbatean?

Erkki Pohjola gogoratu nahi dugu, baina omenaldia kultur mundu osoari zabaldu nahi diogu, urtetan Lehiaketa bezalako ekimenak isilka bultzatu dutenei. Kontuan izan parte-hartzaile guztiak, tartean Et Incarnatus eta bakarlariak profesionalak izanik, musu-truk ariko direla. Oroitzeko moduko kontzertua izatea espero dugu.



Hodeitruk eta Laskorain tolosarrak

abiesbatza joan zen asteburuan izan zen azken aldiz Leidorren *Oh happy day* emanaldiarekin. Laskorain abesbatzak azkenaldian Kataluniako koro batekin burutu ditu grabaketa eta elkartrukea. Beste bi tolosar, Iñaki Epelde eta Pablo Dendaluz, ariko dira eszenografiaren eta irudien. HITZA

Etorkizuneko musikarien txoko berria

Aduna » Kultura jardueretarako lokalak egokitu dituzte. Gaurtik aurrera musika eskola bertan egongo da.

ENERITZ MAIZ

Atzo egun handia izan zuten Adunan. Musika Eskola berria inauguratu zuten. Herriko musika eskolako irakasleak, ikasleak, gurasoak, udal ordezkariak eta herritarrek izan ziren antolatuta zuten ekitaldi xumean. Hitzordua arratsaldean izan zen eta ekitaldiari hasiera Loatzo Musika Eskolako ikasleek eman zioten herritik barrena egindako kalejirarekin. Dultzaineroen laguntza izan zuten. Jarraian, kultur aretoan sartu eta musika emanaldia eskaini zuten. Laburra baina dotorea izan zen musikari txikiek eskaini zutena. Kontzertuaren ostean, trikitilariekin kalejira, Musika Eskola berrirako bidea egin zuten. Ekitaldiari amaiera emateko Musika Eskolako plakaren bistaraztea egin zuten. Udal ordezkariak ere hitz batzuk egin zituzten Loatzoko irakasleei euren esker ona agertzeko. «Loatzo Musika Eskolako 700 ikasleak zoriondu nahi ditugu, eta batik bat, Adunakoak zarentenok, zerenzuek zarete gure herriko txoriekin batera abestiak musikatuko dituzuenak», gaineratu zuten.

Loatzo Musika Eskolako ordezkariak «oso gustura» daude Adunako Udalak izan duen jarrerarekin. «Esanguratsua izan da Udalak kultura eta musikarekiko egin duen apustua» adierazi du Aitor Lasa irakasleak. Behin atek zabaldua, bertaratutako guztiek eraiki-



Musika Eskola inauguratu baino lehen Loatzoko ikasleek kalejira egin zuten herrian zehar. E. MAIZ

na barrutik ikusteko aukera izan zuten. Eta inaugurazioari amaiera emateko merienda izan zen guztientzat.

Kultur jardueretarako lokalak

Lan guztia hauek egiteak, 177.000 euroko kostua izan du. Horietatik 120.000 euro, Foru Aldundiak jarri ditu. Landagipuzkoa 32 proiektuaren barnean egin dituzte lan hauek. Bi solairu ditu eta gizarte ekipamendurako izango dira.

Guztira 165 m²-ko azalera hartu dute. Bi solairuek antzeko itxura izango dute: bi gune nagusi izango dituzte eta dagozkien zerbitzuez hornituta egongo dira. Sotoan musika irakasteko bi gela egongo dira. Lehenengo solairuarekiko sarbide independentea izango du. Horretarako, arrapala egingo da, mugikortasun urriko pertsonen ere sar-tu ahal izateko.



Haurrek emanaldi txiki bat ere eskaini zuten atzokoan. E. MAIZ

'Demode Quartet' antzezlan musikala, Gurean

Villabona » 22:00etan hasiko da saioa Gurea Zineman. Antzezlan musikala da eta umorea da eta oinarri.

ERREDAKZIOA

Gaur Gurea Zinema aretoan *Demode Quartet* antzerki musikala izango da. Helduei zuzendutako emanaldia da. 22:00etan hasiko da eta sarrerak leihatilari erosi behar-

ko dira. Gazte txartelarekin erosi gero, 6 euro ordaindu beharko da eta bestela, 8 euro. Ordu eta hogeita minutu inguruko ikuskizuna eskaintzen dute.

Musika zuzenean

Lau antzezlek osatzen dute taldea: Mikel de la Fuente, Joli Pascualena, Mikel Espinal eta Iker Huitzi. Gidoia eta zuzendaritza lanak Patxi Barco egin ditu.

Demode Quartet antzezlan musikala euskarara egokitzeko lanak



Gaur Villabonako Gurea antzokiko taula gainean izango diren lau kideak. HITZA

berriaz Julia Marinek egin ditu. Musika ikuskizun hau umorez bete da.

Bertsio ezberdinak *a cappella* abesten dituzte. Eta saioko une ezberdinetan piano, gitarra, flamen-

ko kaxoia edota biolaz laguntzen dituzte. Era berean, ikuskizun honetan komedia pixka bat lantzen dute.

Estilo ezberdinetako abestiak entzuteko aukera izango da: eus-

karazko *Txoriak txori edo lastana*, eta *Beat Vox, I say a little prayer for you, Bill Jean, Sweet dreams...*

Une atsegina igarotzeko aukera bikaina eskaintzen du antzezlan honek.

itzulnet
ITZULPEN ZERBITZUA

lurre auzoa 20-21, Tolosa
www.itzulnet.net

AZKARTASUNA ETA
KALITATEA
HIZKUNTZA KONBINAZIO
UGARI ETA
PREZIO LEHIAKORRAK

BEHERAPENAK BOLUMEN
ETA MAIZTASUNARENGATIK

E Elkarrizketa

KATIXA PEREA ETA AIERT BEOBIDE › Koreografoak



ESTI EZBIZA

Zaila da aurrera egitea...
Zaila da aurrera egitea,
begiak itxita, aurrean zer aurkituko
dugun jakin gabe.
Zaila da aurrera egitea,
probatzea, ezagutzea, berritzea,
... atzera begiratu gabe.
Zaila da sokak hautsi eta ezerezean galtzea.
Zaila da, ... zaila...
baina beharrezkoa.
Atzekoari agur esan,
eta aurrera egin behar dugu,
Poliki-poliki, pausoz pauso...
oinez, oinazez
Zaila baita, kateak hautsi eta bide
berriei ekitea,
..... atzera begiratu gabe
Azken finean,
Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko baitira
besteak,
... ala ez?

«Berritasunerako bidean, zaharra galtzeko beldurra izaten da»

Ibarra » Dantza tradizionaletik garaikiderako bide zaila islatzen du 'Oinazez'-ek, Alurr-ek abenduaren 10ean aurkeztuko duen ikuskizunak.

ESTI EZBIZA

Emanaldi berriaren aurkezpen ekitaldirako hasia du Alurr-ek atzerakako kontaketa. Abenduaren 10ean estreinatuko du Tolosako Leidorren bere lan berria. *Oinazez* jarri diote izenburu «dantza tradizionaletik garaikiderako bide horretan sortzen diren zalantza eta arazoak islatzen dituen ikuskizunari». Aiert Beobide da zuzendaria, eta berarekin batera, Katixa Perea arduratu da koreografiak egiteaz. Dantza emanaldi batetik haratago, zuzeneko musika ere izango da. Hilabete inguru falta den honetan, biak ere, azken prestaketetan burubelari murgilduta daude.

Zergatik 'Oinazez'?

Aiert Beobide: Alurr sortu zene-tik hona, bere ibilbidean, dantza aldetik, aurrerapausoak ematen ari-tu da. Euskal dantzak gaindituz, aurrerago joan, eta garaikidetasu-na bilatuz joan da beti, eta bide berriak urratuz. Hala, emanaldi honekin hau agertu nahi izan dugu, aurrerapauso hori ematerako garaian izan daitezkeen beldurrak eta borrokak. Helburu jakin bat ez dagoenean, frogak egiten joan behar da, eta *Oinazez*-ek hori islatzen du, kateak mozteak eta sustraiak atzean uzteak sortzen duen beldurra eta mina.

Alurr-ek berak duen borrokaren isla da beraz, 'Oinazez'.

A.B.: Alurr bezala edo dantzari batek pertsonalki duen borroka bezala ikusi daiteke *Oinazez*.

Katixa Perea: Dantzaren mundutik ere atera daiteke kontzeptua. Gizartearen isla da, berritasunerako bidean, zaharra galtzeko dagoen beldur hori erakusten baitu.

A.B.: Hala ere, olerkiak berak dioten bezala, beldur hori ez da izan behar, gu sortu ginen enbor beretik sortuko baitira besteak.

Nola jaio zen 'Oinazez' kontzeptua, eta emanaldia?

A.B.: Laz hasi nintzen ni Alurriekin lanean, eta koreografia berriak sortzen. Hala, emanaldi berri bat egiteko ideia agertu zenean, ohartu ginen, errazena, hor, guk, izatez genuen kontzeptu hori lantzea zela. Hau da, dantza tradizionaletik garaikidetasunerako bidean, izan ditugun arazoak eta beldurrak ikuskizun batean azaltzea.

Mezu eta kontzeptu nagusia erabakita, horren arabera etorri al dira koreografiak?

A.B.: Sortze prozesua nahasketa bat da, batak bestera eramaten zaitu.

K.P.: Oinarri bat dago, eta hortik helburu batera edo bestera iristen zara. Gu orain, ikerketa lana ari gara egiten.

A.B.: Batzuetan, musika edo kantu batek eraman gaitu koreografia batsortzera, eta beste batzuetan al-

derantziz izan da.

K.P.: Normalean, koreografook ideia bat izaten dugu buruan, eta hau azalduz, musikaren bila joaten gara. Baina oraingoan, kasu askotan alderantzizko gertatu da, musikariak ekarri dituzte ideiak, eta gu beraien oinarrietara moldatu gara.

«Garaikidetasunean, euskal dantza erabiliko dugu gaur egungo zerbait kontatzeko»

Koreografiak aurrekoak baino garaikideagoak al dira?

A.B.: Ez dakit. Izan ere, argi dago, dantza garaikideagoa esatean, ez garelako dantza garaikideaz ari hitz egiten. Euskal dantza erabiliaz, zerbait adierazteko eta esateko lengoaia ari gara sortzen. Orain arte, dantza tradizionala, erritual baten baitan, zerbait ospatzeko egin dena izan da. Baina, orain lortu nahi duguna da, euskal dantza, zerbait adierazteko tresna izatea. Horrek erregistroak eta tenpoak aldatzera behartzen gaitu. Baina bai, zerbait garaikideagoa dela esan dezakegu. Hala ere, horrek ez du esan nahi betiko euskal dantzak ez direnik egongo.

Aldaketa nagusia hau da, beraz.

A.B.: Garaikidetasun horretan, euskal dantza erabiliko dugu gaur egungo zerbait kontatzeko.

Noiz hasi zineten emanaldiak prestatzen?

A.B.: Orain konturatzen gara, ni etorri nintzenezan iaz, hasi ginela

pixkanaka lantzen. Izan ere, abenduan sortutako koreografiak, emanaldi honetan ikusi ahal izango dira. Orduan ez zegoen helburu zehatzik, baina gauza batzuk erabiliko ditugu.

Udan eskainitako emanaldietan, 'Oinazez'-en zertzelada batzuk erakutsi dituzue. Zer moduzko harrera izan dute?

A.B.: Lantzen ari ginen koreografiak, forma harrezatzen eta funtzionatzen zuten edo ez ikusteko, erakusten joan ginen. Koreografietan, aldaketa handiak izan dira. Erritmo komertzialak eta ezagunak alde batera utzi, eta musika ezezagunetara jo dugu, dantzak garrantzia gehiago izan dezan. Estilo hau ez da horren eragin korra, eta komertziala, baina aldi berean sakonagoa da. Diferentzia hori da lortu duguna.

K.P.: Dantzariak oso gustura dau-de, eta harrera ona egin diote.

Aldaketa hori bilatutakoa izan al da, edo naturalki etorri da?

A.B.: Niri naturalki etorri zait, egia da, orain arteko ibilbidean, mila bider dantzatu ditudalagisa horretako koreografiak. Baina guzti horrekin apurtzeko eta gauza berriak probatzeko garaia iritsi zait, eta hori da *Oinazez*. Hori dela eta, agian, ez du aurrekoek bezain besteko kolpeko efektua izango, baina bestetik, urrutirago iritsiko da.

Alurr-en azken ikuskizuna 'Sua' izan da. Hortik 'Oinazez'-erako aldaketa nabarmena izango da.

A.B.: Suaren sortze prozesua ez nuen jarraitu, baina hau, gidoi eta istorio zehatz baten gainean eraiki

zen. Gidoia zatika osatuz joan zen. Oraingo honetan berriz, esperimentazio lan handiagoa egon da musikari, dantzari eta koreografo-arten artean.

K.P.: Bakoitzak bere ikuspuntua eman du eta denon artean sortu dugu gidoia. Hasi ginenean, ez zegoen oinarririk. Bagenekien zer kontatu nahi genuen, baina erabakitzeko zegoen nola.

'Oinazez'-erako bereziki landu duzue gorputz adierazpena.

A.B.: Dantzariak ez dira ari soilik pauso bat egiten, pauso honekin zerbait adierazi behar dute. Horregatik, begiradak, mugimenduak eta aurpegiaren keinuak garrantzia handia du. Mugimendu guztiak izan behar dute zentzu edo arrazoibati.

Honen bestez, ikuslea gauza berrietara irekita ego behar du.

K.P.: Ikusleak zerbait desberdina ikusiko duela jakin behar du.

A.B.: Dena den, horrelako zerbait ikusteko gogoz dago jendea. Euskal dantzaren baitan, gauza ezberdin asko baitaude. Jendeak jakin behar du, ez doala Alurr-en duela hiru urteko emanaldi bat ikustera, zerbait berria baizik.

K.P.: Gainera, zurrenik, interpretazio oso desberdinak sortuko dira jendearen artean. Bakoitzak modu batera ulertuko du eta hori oso interesgarria da. Guri ere gauza bera gertatu baitzaigu.

A.B.: Sortze prozesua bera oso irekia izan da, eta bakoitzak modu batera ulertu du.

Ikuskizun honetan, dantza eta musika orekatuago daudela esan izan duzue.

A.B.: Bai, eta hau, sortze prozesu-tik bertatik abiatu da. Horregatik, musikalki ere asko irabaziko du. Alde batetik, zuzenean ariko dire-lako, eta bestetik, beraien ere parte hartu dutelako hasieratik. Azken finean, ikuskizuna osatutako izan-go da.

Txintxarri Egund bereziena ospatuko dute abesbatzako kideek eta jarraitzaileek

Alegia » Etziko meza nagusiaren ondoren, 12:30ean, kontzertua emango du Txintxarri Abesbatzak parrokian.



Txintxarri abesbatzaren emanaldia aurreko Eguberrietan. EDUARDO ARRAYET

ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri Abesbatzak etzi ospatuko du 50. urteurreneko ekitaldi nagusia. Abesbatzaren ibilbideari errepaso egingo diote emanaldian zehar, garai desberdinetako argazki eta kantuen bidez. Bereziki gogoan izango dute duela gutxi hil den koruaren sortzaile eta lehen zuzendaria, Joxe Gastesi.

Urte hasieratik ari dira Alegiako ospakizunak egiten, baina urtero egiten duten Txintxarri Egunerako gorde dituzte indar eta gogo handienak. Txintxarri Eguna egiten den 13. urtea da aurtengoa, eta emanaldi berezia prestatu dute etzi goizerako parrokian.

Lehendabizi, meza nagusian abestuko du Txintxarri Abesbatzak. Koruan kantari ibili eta hil diren aldeko meza izan ohi da, eta hainbat abesti kantatuz parte hartuko du abesbatzak mezan. Meza amaitutakoan, eguerdiko 12:30ean hasiko da kontzertua. Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek parte hartuko dute.

Lehenengo, Txintxarri Txiki

Lehendabizi taldeko gazteenak hasiko dira kantuan. Bi abesti eskainiko dituzte Tolosako Idoia Iraolaren zuzendaritzapean: Pirritx eta Porrotxen *Iritsi da eguna* eta Eva Ugaldek konposatutako *Kuku ué*. Segidan, aurten urrezko mende erdia bete duen taldearen txanda izango da. Koruaren garai desberdinetako kantua kantatu-

ko dituzte. Hala, bi zatitan banatu dute emanaldia: lehenengoan Joxe Gastesi lehen zuzendariaren garaiko obrak entzungo dira, eta bigarrenean, berriz, gaur egungo zuzendariarekin ikasitakoak, Garbiñe Orbegozoren garaikoak.

Txintxarriaren erreperorioan hain sustraituta dagoen Aita Donostiaren bi kanturekin hasiko dute lana. Joxe Gastesi zenak bereziki oso gogoko zituen Lekarozko frailearen obrak. *Jeiki, jeiki, etchenkuak - Chorittua, nurat hua* kantatuko dituzte. Horren ondoren, *Bortian Ahizki* abestuko dute.

Xefe Baledi eta Xabier Mingo bakarlariek *Herribera* abestiaren lehen doinuak kantatuko dituzte. Benito Lertxundiren doinuari jarraipena emango diote kantariak.

Kontzertuaren bigarren zatian Garbiñe Orbegozoren garaiko kantua eskainiko dituzte. Mikel Larboaren *Nerea izango zen* kantua, Javi Busto hondarribiarrak moldatutakoa, eta XIX. Mendeko Alegiako traperoari Joxe Mari Iparragire kantariak eskainitako abestia, *Trapu zarrak*; Xefe Balerdik bizia

emango dio Alegiako traperoari Angel Unzuk 2004ko Txintxarri Egunerako egindako moldaketa horretan. Maria Rekondo herritar lagunduko die pianoan zentzibait abestitan.

Segidan, Xabier Sarasolak eta Felix Irazustabarrenak Txintxarri egunerako egindako kantua, *Pausoz pauso* abestuko dute. Bi egileak kontzertuan izango dira.

Azken hiru kantua Txintxarri Abesbatzan kantari ibilitakoekin batera kantatuko dituzte. Koruaren historian gehien kantatu diren abestiak aukeratu dituzte: Alexander Lesbordesen *Kantuz* eta Joxe Mari Gonzalez Bastidaren *Saratarra*. Luis Urteagaren *Agur jaunak* kantatuz amaituko dute.

Kontzertuan zehar 50 urteotako abesbatzaren eta abeslarien argazkiak proiektatuko dituzte. 14:30ean bazkaria egingo dute Kultur Etxean, eta bazkari ondorenerako ere festa bat antolatu du Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak. Elkarteak inoiz baino gehiago eskertu ditu koruari laguntza ematen dioten herritar guztiak.

Joxe Gastesi gogoan

Alegia » Orain hilabete zendu zen Joxe Gastesi Txintxarri Abesbatzaren sortzailea gogoratuko dute etziko ekitaldian.

terekin. «Han joaten ginen Don Piorenana koadrila bat. Harekin ikasi genuen», gogoratu zuen Gastesi berak Txintxarri abesbatzak aurten egindako elkarriketan.

Abesbatzaren sorreraz

Txintxarri Abesbatzak 40 urte bete zituenean, Gastesi berak koruaren historiari buruz idatzitako liburua argitaratu zuen. Liburu horretan koruaren sorrerari buruz dienez, «1960an martxan jarri zenean, Txintxarri Abesbatzak betetasun hori lortu zuen. Eta ezerk ez digu Alegiako herriaren aurrean aurreneko kantatzen bizitu genuena kenduko. Hura gutako barreziki gogoan izango dute.

Gastesi Mexikon jaio zen 1926an. Baina laster Alegiara etorri eta bertan bizi izan zen urte luzeetan. Peritu ikasketak egin zituen Zaragozan. Ondoren Beasaingo CAF enpresan aritu zen lanean zuzendariorde gisa. CAFeko Lanbide-Heziketa Eskolako zuzendari izan zen eta hain ezaguna den Goierriko Lanbide-Heziketa Eskolako eta Goierriko Herrien Ekintza Elkarteak fundatzaileetako bat izan zen.

ERREDAKZIOA

Joxe Gastesi bultzatu zuen Txintxarri Abesbatza eta berak zuzendu zuen lehenengo 30 urteetan, 1990 arte. Abesbatza zuzentzearen ardura utzi arren, beti oso presente egon da Gastesiren izena eta izana koruko kontzertu eta ospakizunetan. Irailaren 10ean hil zen eta etziko Txintxarri Egunean bereziki gogoan izango dute.

Gastesi Mexikon jaio zen 1926an. Baina laster Alegiara etorri eta bertan bizi izan zen urte luzeetan. Peritu ikasketak egin zituen Zaragozan. Ondoren Beasaingo CAF enpresan aritu zen lanean zuzendariorde gisa. CAFeko Lanbide-Heziketa Eskolako zuzendari izan zen eta hain ezaguna den Goierriko Lanbide-Heziketa Eskolako eta Goierriko Herrien Ekintza Elkarteak fundatzaileetako bat izan zen.

Musikaren arloan, parrokiko koruan *tiple* bezala hasi zen, 13 ur-

Koruaren 50. urteurrenez galduta, Gastesi zioenez, «ni asko poztzen nau koruak horrela segitzeak. Orduan, 50 urte egingo zituela ezta burutik pasa ere, inork ere ez zuen pentsatuko!».



Joxe Gastesi, iaz ateratako argazki batean. JOXEMI SAIZAR

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Arnezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Eduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jardunaldiak

■ **Tolosa.** Tolosaldeko ikastetxeetako DBH 1eko ikasleek perretxi-kuak eta ondoak jaso eta Aranzadi zientzia elkarteok sailkatu egingo dituzte Kultur Etxean, Mi-kologia Jardunaldien barruan.

Erakusketa

- **Ibarra.** Alurr dantza taldeak antolatutako argazki erakusketa ikusgai da Benito Izagirre kultur etxean.
- **Tolosa.** Hildakoak hilibietatik eraz, duintasunak berreskuratuz erakusketa Kultur Etxean, Aranzadi zientzia elkartearen eskutik.
- **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Inestable erakusketa GKo Galeriraren eskutik, Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongi-loak erakusketa Topic-en.
- **Tolosa.** Ertza erakusketa GKo Galerian.
- **Tolosa.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Lanbroa tabernan, Itziar artista irundarrak eginak.

Musika

■ **Tolosa.** Never Surrender eta CC 627 taldeen kontzertua Bonbere-nan, 22:30ean.


Zinema

- **Anoeta.** Gaztetxean maputxoen inguruko *Aniceto, razon de estado* dokumentala 22:00etatik aurrera.
- **Leitza.** *La cinta blanca* filma zinema, 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernika-ko Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eskola handitzeko lanak hastear

IKAZTEGIETA • Herriko Eskola Txikia duela hiru urtetik txiki geratu zitzaizen ikaztegiatarrei. Ikasle zaharrenek, eraikin aurrefabrikatu batean egon behar izan dute urte horietan. Udala, gurasoak eta irakasleak eskola handitzearen alde lanean aritu dira. Eskola txikia handitzeko, Eusko Jaurlaritza-

ko Hezkuntza Sailak 871.845,78 euroko inbertsioa egingo du. Ia hastear daude lanak. Obrak hasi eta bederatzita hilabetetan lanak bukatuta egotea aurreikusten dute. Ikasturte hau eskolaren ondoko lokal batean pasako dute. Udalak obra honetan ez du gasturik izango. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Pedro Arrospide (Lizartza). Gaur 80 urte. Jarrailu betetzen gutxienez 100 arte. Etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K.: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: